


Cultura

Cine Libros Música Televisión Zinemaldia Jazzaldia Programación TV Cartelera cine

«145 poema neuzkan eta 76 bota ditut zaborretara», dio Pako Aristik



Pako Aristik bere seigarren poema liburua plazaratu du / IDOIA GONZALEZ

Bere seigarren poema liburua plazaratu du urrestildarrak, eta laster nobela bat aterako, hogeituroko etenaren ostean

FELIX IBARGUTXI

Martes, 19 junio 2018, 19:17



Pako Aristik (Urrestilla, 1963) bere seigarren poema liburua plazaratu du: 'Maitatu zure egunak' (Erein). Azken urteotan genero hau landu du batik bat, eta lanik handiena, seguru asko, poemak soiltzen eta poema osoak zakarretara botatzen izan du.

Hau adierazi du aurkezpen ekitaldian: «Poesia sintesia da. 145 poema neuzkan eta 76 bota ditut zaborretara. Beste poemak mozten eta mozten joan behar izan dut, muinaren bila. Zailena da antzematea poema batek zenbat hitz behar zituen ongi geratzeko. Poema bat egina dago lehen lerroa idazten duzun unean; ez dakizuna da ondoren gaineratuko dizkiozun lerroak bereak diren, ala zuk sortutako zaborra. Zaila da onartzea zaborra sortu duzula, baina hala egin behar da, umiltsunez onartu».

Azken urteotan poesia liburuak plazaratu ditu batez ere. Badira hogeituro urte azken nobela atera zuela, 'Urregilearen orduak' (1998), baina genero hori ez du oraindik abandonatu, eta badu beste nobela bat laster ateratzekoa. Fikzioarekin harreman zaila izan du azkenaldian: «Pereza sartu zitzaidan, artifizialtasuna ikusten bainion narrazioari. Nobela asko eta asko oso

artifizialak dira, eta guztiz ordezkagarriak».

Erein etxeko Inazio Mujika Iraola editorearen iritziz, «oraingo poema hauek argiak dira, hemen ez bilatu bigarren edo hirugarren esanahirik. Tonua, batzuetan malenkoniatsua da. Poema xaloak dira, eta xalotasuna bertute bat da. Oro har, bizitzeko gogoia erakusten du liburuak».

TEMAS Euskera
